# KLIK MOREA

zure segurtasuna bermatzeko prest!

Elene, Enara, Maren, Nahia eta Olivia.

*Emakumeentzako segurtasun alarma (lepoko pertsonalizatuak)*

**CANVAS**



**Funtzezko aliantzak**
Aliantza bat deritzo beste enpresa batekin batzea , etekinak ateratzeko. Hura gertatzeko, parte hartzen duten eragile ugari daude. Funtsezko aliantzak hauek elkarlanean egiten dira, elkarrekin baliabideak partekatuz eta merkatuarekin hobeto adostuz. Hauetan parte hartzen duten enpresek elkarrekin harreman estua izaten dute, elkarrekin aritzen dira estrategiak diseinatzeko eta helburuak lortzeko.

**Funtzezko jarduerak**
Funtzionatzeko ezinbesteko ekintzak dira:
- Lepoko kantitate zehatz bat saltzea oinarrizkoa izango da, enpresa aurrera eramateko.

**Funtzesko baliabideak**
Funtzionatzeko beharrezkoak diren aktiboak dira. Kasu honetan funtsezko baliabideak langileak, hertzainak , lepokoak eta mikrofonoak izango lirateke.

**Balio proposamena**
Negozio batek bere bezeroentzat erakargarria egiten duena da , kasu honetan lepoko bat eskaintzea izan liteke, batez ere emakumeentzat bideratuta, haien segurtasuna bermatzeko.

Lepoko honek gizartearen onurak bilatzen ditu. Lepokoaren bidez, beldurra kentzea edo gutxitzea eta segurtasuna izatea eskaintzen dugu.

**Bezeroekiko harremana**
Nola dagoen eskainita, hau da , bezero gehiago izateko bisualki erakargarria izan behar da.
-Beherapenak edukitzeak , bezeroekin harrema handitzen du.
-Pertsonalizatua, kontsumitzailearen bidez.

**Kanalak**
Kanala, produktua nola salduko den da. Kasu honetan, zuzena eta propioa da, izan ere, gure porduktua salduko dugu eta online izango da, hau da, ez du bitartekaririk izango.

**Bezeroen segmentua**
Gure produktua, emakumeentzako bideraruta dagoenez, emakumeak izango dira produktua erosiko dutenak, gehien bat gazteak.
Baina produktu hau edonork erosi dezake , hau da gizonak ere bezeroak izan daitezke.

**Kostuen egitura**
- Bulego baten hileroko alokairua
- Produktu kopuru jakin bat fabrikatzeko beharrezkoak diren lehengaiak.
- Produkzioko langileen soldatak (finkoa) eta fabrikazioan erabiltzen diren materialak (zati aldakorra)
- Oinarrizko kostuak: argia.

**Diru iturriak**
Diru iturriak pertsona batek dirua lortzeko moduak dira, kasu honetan : kontsumitzaileak lepokoak online erostean lortzen dugu dirua.
Enpresak bere produktuak edo zerbitzuak saltzen ditu, eta horrek sarrerak sortzen ditu.Produktu edo zerbitzu bakoitzaren prezioa ere faktorea da. Prezio handiagoak diru sarrera handiagoak ekarri ditzake.
Hau da, salmentak eta kontratuak/ordainketa-termikoak enpresa baten diru sarreren iturriak.

**AURKIBIDEA**


1.- Ideiaren deskribapena
2.- Bezeroen segmentua
3.- Balio Proposamena
4.- Kanala
5.- Bezeroarekiko harremana
6.- Funtsezko baliabideak
7.- Funtsezko aliantza
8.-Funtsezko jarduera
9.- Diru iturria
10.- Kostuen egitura

**IDEIAREN DESKRIBAPENA**




Guk, Euskal Herriko enpresa txiki batek, ***eskuz*** eginiko produktu natural eta ekologikoa izango den, lepoko bat proposatzen dugu. Hau, batez ere emakumeentzat bideratuta dago, haien segurtasuna bermatzeko. Kalean doazela inolako arazorik izan ezkero, honek izango duen ***botoia klikatu*** eta non, noiz eta zer duen jakin ahal izango dugu lagundu ahal izateko. Klik egin eta jarraian, giza talde batek informazio guztia bilduta duela, pertsona horri laguntzeko kanpaina abian jarriko da. Erantzuna jaso bezain laster, segurtasun talde bat abiatuko da pertsona hori aurkitzen den lekura, ondoren, gure bitartekariak hertzainekin edo beharrezkoa den segurtasun taldearekin jarriko da kontaktuan ezinbestean. Horrez gain, bigarren aldiz klikatuz gero, lepokoa, soinu baten bidez adieraziko den alarma bat martxan jarriko da ingurukoak egoeraz ohartarazteko eta pertsona horri lagundu ahal izateko. Izan ere, guk bidalitako laguntzak tokira iristeko arazoak izaten baditu beste modu bat eskeini behar dugu pertsona horrek behar duen laguntza jasotzeko. Produktu hau, aukera ona izan daiteke estu eta larri aurkitzen den pertsona horrentzat, laguntza gehiago eskuratu ahal izateko.

Bestalde, herri bakoitzean, pertsona talde bat egongo da 24h- an zehar laguntza lanetan, laguntza psikologikoa nahiz fisikoa emanez. Lepokoak, guztiz ***pertsonalizatuak*** izango dira, erasotzaileak edo arazoaren gauzatzaileak hauteman ez dezan. Beste alde batetik, lepokoak ***mikrofono*** bat txertatuta edukiko du, non botoia sakatu ezkero, aktibatu egingo da guk pertsonaren egoeraren informazio guztia edukitzeko, kokapena eta egoera psikologikoa barne.

Aitzitik, materialari dagokionez, garrantzitsua iruditzen zaigu ***naturala*** eta ***ingurukoa*** izatea. Aldaketa klimatikoa egungo arazo oso larria izanik, ezinbestekoa delako guretzat horri aurre egiten esku hartzea. Horrekin batez ere produktu ekologikoz eginiko objetuak izango direla helarazi nahi dugu. Gure ezaugarrietatik aipagarriena dela esan daiteke, gure proiektuaren ongizatean eta etorkizunean pentsatuta ere geroan eta gizartearen egoera kontuan hartzen dugulako. Hori gutxi balitz, erabilitako material jasangarria erabiliz gain, garraio bidez bidaliko den produktua biltzeko erabiliko den materiala, mota berekoa izango da, hau da naturala, beti ingurunea zainduz.